

Funtzesko Jarduerak

Multi Shoes enpresak funtzesko 2 jarduera betetzen ditu negozio funtzionatzeko: **produkzio jarduerak** eta **webgunearen jarduerak**.

Produkzio jarduerari erreparatuta, hiru zeregin nagusi daude: diseinua, ekoizpena eta entrega. Lehenkoa, hau da, diseinua, guk gure programeekin egingo ditugu. Aldiz, ekoizpena eta entregatzea beste enpresa batzuen esku utziko ditugu. Gure diseinuak sortu eta gero, [Tortola 1947](#) fabriketara bidaliko ditugu eta haiek ekoiztuko dituzte ahalik eta kalitaterik handienarekin. Bukatzeko, zapatilak eginak daudenean gure bulegoan gordeko ditugu behin-behinean eta salmenta bat dugunean, [Correos](#) enpresara bidaliko ditugu eta haiek beteko dituzte entregak.

Bestalde, denda online baten bidez salduko dugunez, gure webgunea gestionatu, mantenu konstanteak egin eta promozionatu egin beharko dugu. Jarduera hauek guztiak guk gure webguneen oinarritzko ezaguerarekin egingo ditugu. Halaere, etorkizunean, webgunetan espezializatuta dauden langileak kontratatuko ditugu.